

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

161/2025 Erabakia, apirilaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea María del Carmen Gómez Preciado aholkularitza berezia eskaintzeko behin-behineko langile izendatzea

Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko Foru Arauaren 8 eta 24 artikuluetan, eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian jasorikoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, Foru Aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden aholkularitza berezia emateko funtzioarekin behin-behineko lanpostuak beteko dituzten pertsonak izendatzea.

Horregatik, diputatu nagusiak hala proposatuta, martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24.7 artikulua, 15.3 artikuluekin lotuta, aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. María del Carmen Gómez Preciado behin-behineko langileek betetzekoa den aholkulari teknikoaren lanposturako izendatzea (kode zenbakia: 1122.004).

Bigarrena. Erabaki honek 2025eko apirilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE